

IRAKASLE EREDUA

AUGT GAINAZALEN TRATAMENDUA ETA EZTALDURA

Iraupena: 24

Taldeak: 5 talde

DIFUMINATUA ETA AKATSEN ZUZENKETA

Hasiera data: 2025/01/10

Antolaketa: *Modularra*

Helburu orokorrak

- 1.** Ibilgailuak, ekipiak eta tresnak mantendu eta konpontzeko lanekin lotutako informazioa eta, oro har, hizkuntza sinboliko guztia interpretatzea, konponketarako aurrediagnostikoa lortzeko.
- 5.** Gainazalak babestu, berdindu eta txukuntzeko prozesuak aztertzea, egin beharreko mantentze-lana edo konponketa zehazteko, horretarako beharrezkoak diren eragiketak ezarrita.
- 10.** Biltegiko izakinak kontuan izanda salerosketa-aldagaiak aztertzea, ordezeko piezen arloa kudeatzeko.
- 12.** Laneko segurtasunari eta ingurumenari buruz indarrean dagoen araudia ezarritako dokumentazioaren arabera interpretatzea, hura betetzen den ikuskatzeko.
- 13.** Enpresaren egitura hierarkikoa aztertzea, eta lan-taldeko kideetako bakoitzaren rolak eta erantzukizunak identifikatzea, lan-taldea antolatzearen eta koordinatzearen.
- 14.** Produkzio-prozesu bateko lan-jarduerak balioestea eta prozesu orokorrean egiten duten ekarpena identifikatzea, lan-taldeetan parte hartzeko eta produkzio-helburuak lortzeko.

Ikaskuntza emaitzak

Mod.8/AUGT/0295 GAINAZALEN TRATAMENDUA ETA ESTALDURA

IE8.1 Aplikatu beharreko konponketa-prozesua zehazten du, eta, horretarako, gainazalak babestu, berdindu eta txukuntzeko geruzen ezaugarriak aztertzen ditu.

IE8.3 Ibilgailuaren kolorea lortzeko kolorimetria-teknikak aplikatzen ditu, eta, horretarako, finkatutako formulazio- eta nahaste-arauak aztertzen ditu.

IE8.4 Gainazalak txukuntzeko teknikak aplikatzen ditu, eta, horretarako, emandako zehaztapenak eta zehaztutako prozedurak interpretatzen ditu.

IE8.5 Pinturak aplikatzean sortutako akatsak identifikatzen ditu, eta horien sorburuak eta zuzenketa-prozesuak aztertzen ditu.

Ikaskuntza emaitzak

- Autonomia
- Lan taldea

HASIERAKO FASEA Erronka/analisia aurkeztu

Iraupena: 1

Analisia definitu eta egin beharreko lanak zehaztu:

Erronka honetan ikasleak lau talde desberdinetan banatuko dira. Talde hauek ondoren aipatzen diren analisiak eta hauei buruzko aurkezpenak egingo dituzte:

- 1. eta 2. taldeak analisi bat eta aurkezpen bat egin beharko du: piezetan egin beharreko akatsen zuzenketei buruz eta bertan agertu ez diren baina horrelako margoketa prozesuetan agertzea posible diren beste akats batzuei buruz.
 - Akats mota ezberdinak
 - Akatsen sorburuak
 - Akatz zuzenketa prozesuak
 - Pulitzea
- 3.taldeak analisi bat eta aurkezpen bat egingo du: piezetan egin beharreko difuminatu motari buruz eta egin ez diren baina horrelako margoketa prozesuetan egitea posible diren beste difuminatu motei buruz.
 - Difuminatuaren helburuak (zertarako???)
 - Difuminatu motak
 - Difuminatu prozesuak
- 4.taldeak analisi bat eta aurkezpen bat egingo du: kolorimetria eta ibilgailu baten kolore bat lortu, formulatu eta hau modifikatzeari buruz.
 - Zer da kolorimetria?
 - Ibilgailu baten kolorearen identifikazioa
 - Kolorearen formulazioa eta doiketa (ajuste)
- 5.taldeak analisi bat eta aurkezpen bat egingo du: plastikozko piezen margoketa prozesuari buruz.
 - Plastikoendako prestaketa materialak eta prozesuak
 - Plastikoendako txukunketa produktuak eta prozesuak

1.TALDEA	2.TALDEA	3.TALDEA	4.TALDEA	5.TALDEA
• MARKEL • ANER • MARCO • JOSEBA • IKER	• ENEKO • ANER DE LA TORRE • OIER • EDER	• IZARO • UNAI • CAMAL • HARKAITZ • ANDER PINEDA	• EKAITZ • GORKA • ASIER • HAMUDI	• TALHA • AITOR • IMAZ • LANDER • KEPA • AIMAR

Analisi hau txosten batean isladatu behar da, gaiak eskatzen dituen elementu guztiak egoki landuta bere barne dituelarik. Txosten hau taldekoa izango da baina taldekide guztiek entregatu beharko dute MOODLE bidez ebaluatua eta kalifikatua izateko.

Analisi hau egin ondoren eta aurreko erronkan exekutatuak pieza oinarri moduan erabilia ondorengo bi eragiketa egingo dira:

- Ikasleek bertan identifikaturiko akatsak zuzendu beharko dituzte, horretarako akats mota desberdinen identifikazioa eta hauen zuzenketa nola egiten den aztertu beharko dute.
- Irakasleak, ikasle bakoitzaren piezan, aparejo partxe bat emateko kokapena adieraziko die ikasleei, adierazitako partxea emateko eta bertan kolore difuminatu bat egin beharko dute pieza ondo amaituta eta akatsik gabe utziz.

Erronka honetan landutako gaitasun teknikoei buruzko azterketa bat egingo da. Azterketa honetan ikasleek aurkezpenetan landutako gai ezberdinetako edukiak izango dira.

GARAPENeko FASEA

Iraupena: 6

Ikasleek erronka aurkezpenean taldeak eta gaiak baliatuz txosten bat eta PPT bat prestatu beharko dute aurkezpen bat egiteko. Honekin batera irakasleak difuminatu bat egingo du tailerrean ikasleak eragiketa honen oinarri bat izateko. Irakasleak beste pieza baten ohikoenak diren akatsak ere zuzenduko ditu difuminatuarekin bezala, eragiketa honek dituan gakoak esagutarazteko.

BUKAERAKo FASEA

Iraupena: 12

Ikasleek aurkezpen bat egin beharko dute gai ezberdinetako item garrantzitsuak landuz. Irakasleak aurkepen bakoitza egindakoan galdera bidez edo eta azalpen biden gaia bere osotasunean landu dela zihurtatuko du.

Ikasleek tailerrean 2.4 erronkako pieza baliatuz, bertako akatsak zuzendu eta difuminatu bat egin beharko dute.

Ikasleek azterketa bat egingo dute erronkan zehar landutako kontzeptuak barneratzeko.

EBALUAZIOA

Iraupena: 5

Erronkan zehar sortutako ebidentziak ebaluatu eta kalifikatuko dira irakaslearen aldetik. Fase honetan hobekuntza erredukzio fase bat ere egitea du helburu. Ikasleeri feed-back bitartez euren egoera azalduko zaie, bertan hobekuntza edo eta erredukzio jarduerak proposatuz.

Ebaluazio irizpideak

Taula honetako %ak Tknikak proposaturikoak dira. Erronkaren arabera aldatu daitezkeenak.				Irakasleak	Ikasleak bere buruari	Ikasleak ikaskideei	Kanpo ebaluazioa
				%	%	%	*
Gaitasun teknikoak	60%			100%			
Zeharkako gaitasunak	40%	Lan jarrera	30%	70%	10%	20%	
		Autonomia					
		Komunikazioa					
		Lan taldea	10%		50%	50%	

Baliabideak

Erronka hau burutzeko WIFI konexiodun Ethazi gela eta pintura tailerrean dauden instalazio eta ekipamenduak izango dira ikaslearen esku.

Denbora antolaketa

	Astehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:00 – 9:00	AUGT				AUGT
9:00 – 10:00	AUGT				AUGT
10:00 –11:00	AUGT				AUGT
ATSEDEN.					
11:30 –12:30					
12:30– 13:30					
13:30 –14:30					